



.....
***Fin-fin lanean,
ohiturei eutsiz.
Eskerrik asko!***
.....

Areti Gkika, Itsasondoko alkate « Ni alkate izatea bizi dugun egoeraren ondorio bat da»
[Autobide elektrikorik ez](#)
Urtarrilak 7, herri mobilizazio orokorra Bilbon


2011. urteak ia eman du berea, abenduko azken egunetan sartu gara. Baina Itsasondo 2.0k oraindik asko du zuei berri emateko eta beste behin, albiste eta kontu zahar nahiz gaurkotuekin, gutzia erakargarri baterik gatoz zuen bakarruneak goxatzera. Ez da gutxi egin duguna. Herritar batzuen ilusiotik sortu zen herri-aldizkari koxkor hau. Herritik herriarentzat. Denborarekin gorpuzten eta sendotzen joan da gero eta herritar gehiagoren indarrak metatu ahala. Jarrai dezagun guztion artean gure herri istorioen mosaikoa osatzen, guztiok baititugu zer kontatua.

Gaurkoan ere badugu zer kontatu andana: Ale honek biltzen dituen lehen orrialdeen artean azaroaren 25ean ospatu zen Emakumeen Indarkeriaren Aurkako egunaren argazkia jaso nahi izan dugu. Aldarrikapenei begira jarritz, *Egin dezagun bidea* ekimenak euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde deituriko Herri Mobilizazio Orokorreko deia luzatu nahi izan dizuegu. Herriko agendari errepaso azkar bat emanez, Itsasondoko jubilatuek Balentziaga museora eginiko irteera eta Itturri-txiki guraso elkarteak antolatutako mendi-irteera eta ondoren eginiko gaztaina-jana ekarri nahi izan ditugu gogora. Elkarrizketen atalera jo eta egun herriko alkate den Aretirekin izaniko solasaldia duzue irakurgai. Udaleko berrien atarian, batetik, Itsasondoko lursailak zeharkatuko dituen goi-tentsioko linea berri baten inguruko azalpena duzue eta bestetik, datorren urteko tasak eta zergen inguruko xehetasunak dituzue eskura. Hau guztia aurrerapen txiki bat baino ez da izan. Badakizue, ohi bezala, hori eta gehiago, beraz badakizue... aldizkaria eta gozatu Itsasondo 2.0-rekin!

Hurrengora arte eta bitartean kontent bizi! ■

Itsasondoko biztanleriaren bilakaera

2011. urtean jaio eta Itsasondon erroldatuta daudenen zerrenda: Mikel, Mara, Urko, Sara, Goizeder, Euri, Anne, Jaume, Elene, Iraitz, Oneka, Julen, Aiora eta Oier.



DOINUA: Gaueko izar argitsuena

Herriko eskolak plazaratu du bere aldarrikapena, deitoratu da emkumeek bizi duten jazarpena; jubilatuek Balentziagara eta laster datorrena: goi-tentsioko kable gehiago gure herrian barrena.

Elkarrizketa luzatu zaio Areti alkateari, tasaketaren zerga berriak datoz atariz atari, Iturri txiki gaztainak erre ta mendian ibiltari, Bilbora, berriz, mundu txiki bat herri baten mezulari.

Sarrerako bertsoak

Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak:** Tasak eta zergak.
- 04. **Eskola:** Azaroak 25.
- 05. **Haurreskola:** Autonomoak ala mendekoak.
- 06-09. **Elkarrizketa:** Areti Gkika.
- 10-11. **Agenda21:** %90 Birziklatzen dugu!
- 12-13. **Gazteria**
- 14-15. **Tentsio handiko linea berria**
- 16. **Kale inkesta:** Olentzero ala Erregek.
- 17. **Urtarrilak 7**
- 18. **Ongizatea. Berdintasuna.**
- 19. **Informatika:** Gabonetako opari teknologikoak.
- 20-21. **Ibilbidea:** Itsasondo-Bartzelona-Itsasondo.
- 22. **Itsasondoko aitonak:** Balentziaga Museoa.
- 23-25. **Hemeroteka**
- 26. **Liburuaren txokoa.**
- 27. **Lorezaintza eta sukaldaritza.**
- 28. **Oharrak. Kultur agenda.**

Trafiko aldaketak

Abenduaren 15etik aurrera, Goiko kaleko Toki-Goxotik Senpertegi bitarteko errepide zatia norantz bakarrekoa da, planoan azaltzen den eran.

Herritar guztiei aldaketa horren berri ematen diegu, ibilgailuak gidatzerakoan aldaketa kontuan izan dezaten, istripurik ez gertatzeko. ■



Tasak eta zergak

Urtea amaitu baino lehen, urtero bezala, aurten ere datorren urteko ordenantza fiskalen aldaketarako erabakiak hartu dira.

Datorren urteari begira, KPIren aldaketa aplikatuko zaie honako tasa eta zerga hauei:

- Etxebizitza eta obren gaineko tasa
 - Ur hornidura zerbitzuko tasa
 - Ibi baimenen tasa
 - Aparkalekuko tasa
 - Hilerriko lurperatze tasa
 - Hirilur eta landalurreko ondasun higiezinaren gaineko zerga
- Ibilgailuen gaineko zergaren aldaketa ere onartu da, baina zerga horren aldaketa %3 baino handiagoa izango da, 12 zaldi fiskal baino gehiago dituzten ibilgailuei dagokienez.

Zabor-bilketa sisteman Itsasondoko biztanleak zaborra birziklatzeko egiten ari diren esfortzua kontuan izanda, datorren urterako ez da igogerarik izango zabor-bilketaren tasetan.

Ordenantza fiskalen espedienteak jendaurrean jarrita daude, interesatuek ikusi ahal izan ditzaten.

DIRU-LAGUNTZAK

Azken hilabeteetan, diru-laguntza garrantzitsu baten berri jaso da. Itsasondoko Udaletxea berritzeko obretarako, Foru Aldundiak 100.000 euroko laguntza ematea erabaki du. Kopuru horrekin, obraren lehen fasea (udaletzeko bulegoak, igogailua eta eraikinaren inguratzaile termikoa) finantzatzea asko erraztuko da. Guztira, Aldunditik 550.000 euro jasoko dira, eta Udalak 300.000 euro jarri beharko ditu.

Fase horretako obrak 2012an hasi eta urte berean amaitu beharko direnez, laster obren lizitazioa egin eta obrak hasiko direla aurreikusten dugu. ■

Bost izar, bost kolore, bost ibilbide

Mendi iturriak txukuntzearekin batera, herriko mendi inguruetan, bost mendi ibilbide markatu dira.

- Sarasolako bira
- Lizardiko bira
- Izarreko bira
- Ioiako bira
- Murumendiko tontorra ■



Herri eskolako ikasle eta irakasleek ez borobila esan zioten emakumeen aurkako indarkeriari:

- Aupa emakumeak! Oso ongi iruditzen zait emakumeen indarkeriaren aurka EZ borobil bat esatea, zeren mutilek ez dute neskek baino gehiago agintzen.

Julen Zabalua Etxaniz (5. maila)

- Ondo iruditzen zait egun hau egitea, emakumeen aurkako indarkeria EZ borobil batez bukatzeko. Ez dugu batzuek besteak baino gehiago gabela sentitu behar.

Unai Otegi Muñoz (6. maila)

- Oso ongi iruditzen zait egun hau egitea, arrazoi asko baitago emakumeen aurkako indarkeriari EZ batez erantzuteko. Urtean zehar emakume askok sufritzen dute, eta lagundu beharra dago.

Aitor Garmendia Etxeberria (6. maila)

- Ez borobil bat esaten diot egun hau berriro gogoratu beharrari.

Antonio Contreras Alunda (5. maila)

- Badakit mutilek neskek baino indar gehiago dutela, baina EZ borobil bat esan nahi diot indarkeria erabiltzeari.


Aiora Gorostizu Otegi (5. maila)

- Ez zait ondo iruditzen indartsuak ahulari jotzea.

Mohamed Sobai (6. maila)

- Ez erabili indarkeria!!


Julen Sarasola Moreda (6. maila) ■



Eskolako ikasle eta irakasleak azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeriari EZ esaten!!!



Etorkizuneko haurrak nolakoak nahi ditugu? Autonomoak ala mendekoak? Gure esku dago haurren nortasuna egituratzea



Haurra txiki-txikitatik ezaugarri eta ahalmen batzuekin jaiotzen da. Hasieran oinarrikoak dira; adibidez, haurrak gosea eta logura sentitzen ditueanean, negarra da hori adierazteko modua. Negarra da, hain zuzen, bere bitarteko primitiboena. Orduan hasten da helduaren eta

haurren arteko harremana. Haurrak heldua behar du bere beharrak asetzeko. Haurra beharrak sentitzen hasten da, eta bere ahalmenak martxan jartzen ditu helduari komunikatzeko. Horrela, helduak haurra aseko du.

Oso garrantzitsua da haurren eta helduen arteko komunikazioa hasteko modua, denok baitakigu haurra txikitatik mendekoa dela eta ez dela gai bere burua asetzeko. Baina neurri batean badu autonomia, hau da, haurra garapen prozesu baten barruan dago, eta dagoen prozesuaren arabera, bere gorputza prestatuta egongo da gauza batzuetarako, bai mentalki, bai fisikoki.

Beraz, haurra biologikoki prestatuta dago zenbait ekintza egiteko edo emozioak adierazteko, inongo interbentzioren beharrik gabe. Adibidez, haurrari ez zaio erakutsi behar oinez ibiltzen, bere gorputza prestatuta dagoenean, bera hasiko da, aurretik zenbait fase pasatu ondoren (jira-birak, atzeraka, katamarka...). Haurrak ingurune egokia badu, bai fisikoki eta bai emozionalki, aurrerapausoak egiten ditu. Gauza bera gertatzen da esfinterraren kontrolarekin eta hizkuntzarekin, besteak beste. Beraz, sekuentzia bera gertatzen da arlo guztietan.

Haurrak bere beharrak aseta baditu eta segurtasuna sentitzen badu bai emozionalki, bai fisikoki, bai eta sozialki ere, ikasteko motibazioa eta jakin-mina edukitzen du, eta, ondorioz, esperimentatzen hasten da, bere gorputz guztia erabiliz eta garapen prozesuan aurrerapausoak emanez.

Horrela, hori guztia aipaturik, helduak betetzen duen papera oso garrantzitsua izango da, bi bide jarraitu baitituzake:

1. Helduak haurren beharrak asetzeko, bere erritmoak errespetatuz eta entzunez. Errespetuzko komunikazio interaktiboa sortuz eta ezinbesteko segurtasuna emanez, haurrari ingurune egoki bat sortuz. Horrela, haurrari bere garapenaren protagonista izaten utziko zaio, eta ahalmen guztiak indartzen lagunduko zaio, etorkizunean pertsona autonomoa izatera bultzatuz.
2. Heldua izatea haurren prozesuaren protagonista. Helduak markatzea haurrari zein erritmo eman behar duen bizitzan. Horrela, bere erritmoa hautsiko dio. Ondorioz, dependentzia bultzatuko du, haurrak ez baitu ikasiko bere erabakiak hartzen eta bere ahalmenak martxan jartzen. Horren ondorioetako bat izango litzateke, norbaitek bere bizitza markatu nahi izatea eta bere ekintzak bere gain ez hartzea, besteei botaz erru guztia.

Beraz hori guztia aipaturik, garrantzitsua da helduak haurra zer erataraz hezteko erabakitzen duen. Hain zuzen, modu batera haurren dependentzia landuko du; hau da, helduaren interbentzioa handia bada eta bere erritmoa markatzen badiu, bere garapen prozesuaren erritmoa hautsiko dio eta ondorioz haurrak ez ditu landuko bere ahalmenak.

Beste modura, haurren autonomia landuko dugu. Haurraren konfiantza edukiko dugu eta konfiantza emango diogu. Bere buruarekiko segurtasuna eta oinarri segurua bultzatuz. Horrela, etorkizunean bere erabakien eta ekintzen arduradun izango da; hau da, pertsona autonomo eta libre. ■



Areti Gkika, Itsasondoko Alkate: “Ni alkate izatea, bizi dugun egoeraren ondorio bat da”

5 hizkuntzaren jabe da. Greziera, euskara, ingelesa, katalana eta gaztelania. Italiaraz eta frantsesez ere poliki moldatzen da. 41 urte. 22 urterekin utzi zuen sorlekua, Atenas. Ez da gehiago itzuli hara bizitzera. Ikasketa asko, baina ezin hemen homologatu. Orain dela 5 urte iritsi zen Itsasondora. 3 urtez loian bizi izan da baserrian, eta ia 2 daramatza herrian bizitzen. Medikatu etxean bizi da, mutil-lagunarekin eta 2 urteko alabarekin. Alkatetza ez da erraza, “ofizio” hori ikasten ari da. Hemen dituzu bere aitorenak, alaitasun izugarri, indarrez eta euskara “perfektuan” egin dizkigun aitorenak.

Ezagutzen al zaituzte herritarrek?

Uste dut ezetz. Horregatik iruditu zitzaidan aukera ona zela elkarrizketa hau egitea. Zerrendak osatzen ari ginenean, ezezkoa esateko arrazoi nagusia zen herritarrek ez nindutela ezagutzen. Gainera, herrian bertakoa ez izateak mesfidantza puntu bat sor dezake... Niri benetan gustatuko litzaidake herritar guztiarekin banan-banan egotea eta denekin hitz egitea. Horrela gusturago sentituko nintzateke, duda honetan baino: “Ezagutzen ote naute? Ez ote naute?” Baina hori ez da erraza.

Greziarra zarela badakigu ia denok, baina Grezian nongoa zara?

Atenaskoa naiz. Metropoli bat da Atenas. Oso hiri interesgarria da, eta nik nire burua metropolitartzat daukat. Egia esan, metropoliak baditu alde on eta txarrak, baina nik maite ditut hiriak, nahiz eta orain herri batean bizi.

Noiz utzi zenuen Grezia?

22 urterekin. Mexiko Hirira joan nintzen, pentsatuz itzuliko nintzela, baina ez nintzen gehiago itzuli. Ez behintzat bizitzera. 19 urte daramatza Greziatik kanpo, jada ez nago gustura nire herrialdean. Mexikon nintzela, zapatisten errebolta gertatu zen, eta Chiapasen egon nintzen hura hurbiletik jarraitzen. Gainera, Mexiko Hiriarekin benetan maitemindu nintzen.

Ikasketaz zer dugu Areti?

Baditut bai ikasketa batzuk eginak, hemen homologatzen ez dizkidatenak, gainera. Grezian ikasi nituen psikologia, pedagogia eta filosofia. Hemen ez dago horrelakorik, eta horregatik ez didate homologatzen. Master bat ere egin nuen Bartzelonan, gizarte bazterketari buruzkoa, hori da niri gehien interesatzen zaidan gaia. Gizarte bazterketa eta kultura aniztasuna zuen izena masterrak, oso-oso interesgarria, baina ezin dut praktikan jarri, ez daukadalako lizentziatura homologatuta. Horrez gain, egin dut gizarteratzeari buruzko goi-mailako ziklo bat ere, eta orain Hezkuntza Bereziko irakasle-ikasketak bukatzen ari naiz. Dena dela, niri ez zait hainbeste interesatu izan karrekar egitea eta arrakasta profesionala lortzea, niri interesgarriagoa iruditu izan zait munduan bidaiak egitea eta beste errealitate batzuk gertutik ezagutzea. Orain eginen ari naizen karrera interesatzen zait, eta, gainera, lanbide bat beharko dudalako ere ari naiz egiten. Bestela, urteetan tabernetan aritu izan naiz lanean.

Kontatu zure bidaiak horiek:

Mexikora joan nintzen lehenik, 22 urte nituela. Han, lauzpabost urte bizi izan nintzen. Berez hantxe bizitzen gelditzeko asmoa nuen, baina Greziara itzuli behar izan nuen, familiako kontu bati aurre egiteko. Grezian urtebete egon nintzen, eta berriz ere Mexikora bueltatu nintzen,

zikloa ixteko bezala. Eta handik Kataluniara etorri nintzen, eta Kataluniatik hona.

Eta zergatik etorri nahi zenuen Euskal Herrira?

Nire betiko ametsetako bat zen euskara ikastea. Mexikon nengoela, jadanik banuen euskara ikasteko gogoia, eta hona etorri nintzen euskara ikastera. Zergatik? Ba, ez dakit. Gauza asko egin ditut nire bizitzan zergatia jakin gabe, intuizioz... Ez naiz, beraz, etorkin “tipiko” bat.

Zer ikusten zenion euskarari ba?

Alde batetik, hizkuntzak gustatu egiten zaizkit. Dakizkidanak eta ez dakizkidanak. Hizkuntza jakiteak kultura hori hobeto ezagutzen laguntzen dizu. Jon Maiak esan zuen bezala, hizkuntzak betaurrekoak bezalakoak dira, kultura begira

Eta ze inpresio egin dizu euskarak eta Euskal Herriak?

Nik euskara maite dut, benetan. Gauza asko irakurri izan ditut euskaraz, entzun ere bai, abestiak... “Gu eta gutarrak” taldearen hitzetan aurkitu nuen ni euskara ikastera bultzatu ninduenaren deskribapen onena: “Nire iritziz, errua dute Laboak eta Sarrik, Hertzainakoek, politikak eta hiru-lau ameslarik” (“Noiz hasi ote zen dena” abestian). Hemengo bizitzak baditu oso gauza onak (beti kalean bizitza egiteko ohitura, esaterako), baina baita zailak egiten zaizkidan ohiturak ere. Nahiz eta ni ez naizen atzeritar edo etorkin tipikoa, oraindik ere kanpotar sentitzen naiz. Nahiz eta urte asko eraman hemen eta euskaraz hitz egin (eta esker-rak! Bestela, dena oso desberdina izango litzateke), atzeritar sentitzen naiz batzuetan, eta hori ez zitzaidan gertatzen Katalunian.

Zer esan nahi duzu, atzeritarrekiko errezeloa daukagula?

Bai, baina hemen atzerrikoa da baita ordiziarra ere. Niretzat puntu hori oso polemikoa da. Hemengo jendeak kanpoak gutxiestea mesfidantzarekin, interes ezarekin eta autosufizientzia sentimenduekin lotzen dut. Hemengo jendearentzat garrantzitsuena da familia, gero koadrila eta gero gerokoak... eta nik ez dut ez familiarik, ez koadrilarik, zentzurik hertsienean.

Eta nola hasi zinen euskara ikasten?

Ba Bartzelonatik atera nintzen gaueko hamabietan, lana bukatu eta berehala, eta goizeko 6etan iritsi nintzen Donostiara, handik Lazkaora, Maizpidera, eta ez nekien "Kaixo" esaten ere. Oso egoera surrealista zen, ni bakarrik bainengoen 0 mailan. Nire mutil-lagunak ere egoera berberetik pasatu behar izan zuen iaz, euskara ikasten hasi zenean. Orain, ordea, aurrerapen handiak egin ditu.

Eta ze oroitzen dituzu euskara ikastearen prozesuaz, eta hemen bizimodua hasteaz?

Ba euskara ikasteko prozesua ederra izan zen. Ez zitzaidan zaila egin. Harroputza naizela dirudi, baina ez da hala. Nik orduan banituen nire bizitzako 6-7 hila-bete euskara ikasteko, eta, gainera, dirua neukan horretarako. Eta hori oso garrantzitsua da, hona etortzen diren etorkin askok ez baitaukate hori dena. Baina ni nire ametsa betetzera etorri nintzen. Herri baten bihotzerainoko bidaiaria egitea bezalakoa izan da hau niretzat.

Nola iritsi zinen Itsasondora?

Kasualitate hutsez. 2 lagunekin Ordizian-edo etxe bila nobilela, loiako baserrira joateko aukera sortu zen, eta halaxe joan nintzen hara. Gero haurdun geratu nintzenez, bai, hemen inguruan etxe bila hasi nintzen. Pentsatzen nuen haur bat hazteko hobe dela herrian bizitzea. Itsasondoa batzuk ere ezagutzen nituen, eta horrela iritsi nintzen Itsasondora.

Eta Itsasondora iritsi bakarrik ez, gaur egun alkate zara. Nola iritsi zara horretara?

Zaila izan da, oso zaila. Ni, azken finean, bizi dugun egoeraren ondorio bat naiz. Ni alkateza honetan egotea, Areti greziarra, ez litzateke gertatuko, gaur egungo egoera politikoa bestelakoa balitz. Alkatez egon behar zuen jendeak ezin du egon, eta niri baino lehen beste askori tokatzen zitzaie, baina debekatua daukate. Salbuespen egoera batean gaude, eta salbuespeneko erantzuna eman behar izan zaio. Egia esan, honek baditu alde onak ere. Jende berria dago Udalean, eta oso fresko dago. Hori oso ona da, baina hasiera oso gogorra izan zen. Behartutako egoera bat geneukan. Beharra zegoen, herriko alkatez herritar baten esku gera zedin. Hemendik aurrera egoera hori da, baina horrekin saiatuko gara zerbait polita egiten, eta nik uste dut egin ere egingo dugula, baina hasieran nik ez nuen ez bokaziorik ez gogorik honetan sartzeko.

Baina baiezkoa esan zenion alkate izateari.

Bai, eta erabaki hori hartzea Giorgosi, nire mutilari, zor diot, eta hori esan beharra daukat. Banekien alkate izateak zuzenean eragingo ziola gure familia-bizitzari; izan ere, nik lehendik banituen lana, umea eta ikasketak. Alkatez beste lan bat gehiago izango zen, eta etxean ezin-go nuen hainbeste egin. Baina berak esan zidan "gu hemen bizi gara, beti ondo hartu gaituzte eta guk trukean zerbait eman behar diegu. Nik lagunduko dizut, edozer erabaki hartzen duzula ere." Izan ere, azken finean, udaletxean pasatzen ditudan orduak ezin ditut etxean pasatu.

Udalan agintean zaudeten guztiok alderdi berekoak zarete, eta horrek asko erraztuko ditu gauzak.

Bai, bestela ez nuke alkatez onartuko. Uste dut ezingo nukeela kudeatu horrek sortzen dituen tentsioak, eztabaidak eta... Orain Udalan dugun egoera errazagoa eta malguagoa da.

Ze arrasto uztea gustatuko litzazuke lau urte hauen ondoren?

Itsasondoko jendeak atzerritarrei begi onez begiratzea nahi dut. Ez dut esan nahi hala egiten ez dutenik, baina nik utzi nahi dudana bakar horixe da. Izan ere, gerta liteke kanpotik etorri eta herriarekin interesa izatea. Hori da niri gertatu zaidana eta beste askori gertatzen zaiona. Desberdina da, ordea, nire egoeran etortzea edo... Ekuadortik edo Kolonbiatik etorritako batek agian ez du izango ni etorri nintzenez bezalako luxuzko egoera. Etorkizunean anekdotikoa izango da "Behin Itsasondok alkate greziarra izan zuen"; baina anekdota horren barruan nahi nuke gelditzea ez dagoela bertakoen eta kanpokoen artean bereizketarik egin beharrik. Hori kanpotik dator, baina, azken finean, hemen bizi gara denok.

Hitz egiguzu Udalan dituzuen proiektuez.

Proiektu handiena da lehendik hasita iritsi zaiguna: udaletxea berritzea. Kultur etxea eta dena integratu nahi ditugu proiektu horretan. Liburutegia izango da bertan, ludoteka eta beste lokal batzuk ere bai herritarrentzat. Nahi genuke herritarrek erabiltzea, beraiantzat izango baita. Baina diru asko behar dugu proiektu horretarako. Eta, egia esan, nik asko ikasi behar izan dudana da gestioa. Diru-laguntzak eskatzea. Horrez gain, baditugu beste plan batzuk: gazteria proiektu bat, berdintasuneko plan apal bat... Egunerokotasuna dinamizatu nahi dugu,

eta hori ez da hain erraza herri txiki batean. Eskola berri bat egin beharko dugu, baina horretarako lurra aukeratu behar da, eta hori egin nahi genuke herriko eragileen, eta, batez ere, herriko jendearen laguntzarekin. Benetako parte-hartzea sustatu nahi dugu.

Abiadura handiko trenari buruz zer esan dezakezu?

Udalan sartu naizenetik, askotan galde-tu dut zerbait egingo dugun horri buruz, baina esan didate egindakoa eginda dagoela, eta jada ez dagoela aukerarik ezer egiteko. Agian aurrerago helduko diogu berriz gaiari.

Zer diote lagunak eta familiakoek zure alkatezari buruz?

Ba harrituta daude. Nire tradizio politikoa da autogestioa, etxe okupatuak, eta, beraz, lagun batzuek ez dute ondo ikusten ni alkatez egotea, eta ulertzen diet. Baina egia da hemengo egoera oso ondo ulertu behar dela ni alkatez nola iritsi naizen ulertzeko. Baina, bestalde, lagunak ezagutzen naute, eta badakite ezin dudala egon zerbaitetan inplikatu gabe.

Sarri joaten al zara Greziara?

Saiatzen naiz urtean behin joaten.

Eta nola daude Grezia eta greziarrak? Agintariak?

Jendea oso larri dago. Nire ustez, Grezian gertatzen ari dena kapitalismoaren gain-beheraren sintoma bat da. Gizartea desberdina denez, kapitalismoaren aurpegia ere desberdina da. Eskandaluak, faltsututako elementuak... Bestela, Grezian gertatzen ari denak (eta nire ustez hemen ere gertatuko denak) zerikusi handia dauka gizartearen jarrera orokorarekin, eta ez klase politikorekin.

Han gertatzen ari dena hona ere etorriko dela susmatzen al duzu?

Bai, nik uste baietz. Murrizketak murrizketaren gainean egiten ari dira, lan-baldintzak suntsitu... Zergatik? Bankuak pertsonak baino garrantzitsuagoak direlako, baina hori guk egin dugu. Guk eman diegu bankuei indarra. Guk erabaki genuen Cayenne eta Transporter bat erostea dirurik izan gabe. Guk erabaki genuen kotxe horiekin zorientuago izango ginela, eta ez politikariek. Uste dut hona ere iritsiko dela, eta jendea ez da horretaz jabetzen. Jendeak pentsatzen du "Ai gizajoak zuek, greziarrok!". Eta ez, haiek ez dira gizajoak, ardura gurea baita, gizarte osoarena. Orain erdi-mailako jendea negarrez ibiltzea 4x4-a ezin dutelako ordaindu. Ba niri ez didate

penarik ematen. Niri pena ematen didate etxea ordaindu ezin dutenek, eta hipoteka ordaindu ezin dutenek, nahiz eta oso langileak izan. Gure gurasoak oso langileak ziren, eta gu haiei esker maila baxutik erdi-mailara igo ginen. Orain hortik jaisten ari gara. Klasea galtzen ari da jendea. Nire lagun profesionalak klasez jaitsi dira. Eta hori oso larria da, jakitea gure seme-alabak gu baino baldintza okerragoetan biziko direla. Batzuk horretaz jabetuta daude Grezian, baina gehien-gehienak zeuden tokira iritsi ziren etorkinak esplotatuz, albaniarrek eta... eta beti esplotatu izan dituzte krudelki. Horiek ez didate penarik ematen, niri pena ematen didate lehen etorkinak zirenak eta orain oso egoera larrian direnak, klubak klase bat birstortuko dutenak.

Itsasondarra sentitzen al zara?

Ez diot nire buruari galdera hori egiten. Ezta nire alabari ere. Niretzat ez da garrantzitsua bat nongoa den. Pentsa! Ni izango nintzateke Atenaskoa, Mexiko Hirikoa, La Bisbal de Empordakoa, Itsasondokoa... Banaiz Itsasondokoa, baina beste horietakoa ere bai. Nik toki askotan daukat sustraiak, zorte handia daukat.

Greziako zer toki gomendatuko zeniguke oporretara joateko?

Uharteak. Niri izugarri gustatzen zait itsasoa. Santorini oso turistikoa da, baina merezi du. Oso polita da. Berezi polita da. Kolorea, mendiak, sumendiak... Uharteetan bira moduko bat egingo nuke: Mikonos, Anafi, Nisiros (asko maite dut Nisiros, Atenastik urrun dago, Turkiatik gertu), Peloponesos... Greziara joan nahi duenak galde diezadala, oso ona naiz bidaiak antolatzen.■



Sublaki Santorini



Thanasis Papakonstatinou




	Euskal Herria	Grezia
Toki bat	Txindoki	Santorini
Jaki bat	Txuletoia (kebab-aren antzekoa)	Sublaki Σουβλάκι
Edaria	Sagardoa	Amak egiten zidan limonada
Liburu bat	Nora ez dakizun hori	Petros Markaris-en (Πέτρος Μάρκαρης) eleberriz beltzak (poliziakoak)
Musikari bat	Laboa	Thanasis Papakonstatinou (Θανάσης Παπακωνσταντίνου)
Lagunekin egiteko	Sagardotegia eta parranda	Udako aire libreko zinea eta poteak Atenasen.
Urtaroa	Udazkena	Uda
Hitz bat	Bertsoa	Itsasoa Θάλασσα



Itsasondon hondakinen %90 birziklatzen dugu!

Ekainetik, hondakinak biltzeko sistema berria martxan dugu Itsasondon. Aldaketara moldatzeko denbora eta esfortzua behar izan baditugu ere, guztion ahaleginari esker izugarrizko emaitzak lortu ditugu. Hona hemen emaitzen laburpen bat:



Bildutako frakzioei dagokienez:

Errefusa izugarri jaitsi da (-%92,3):

- Hilero 10.960 kg jasotzetik, 848 kg jasotzera pasatu gara. Beraz, hilero -10.112 kg gutxiago.
- Aurreko sisteman (bost edukiontzi), errefusa bildutakoaren %61 zen. Sistema berrian, aldiz, %8 besterik ez.

Gaikako bilketa-mailak gora egin du (+%49,2):

- Kantitatean: hilero birzikla daitezkeen 6.888 kg jasotzetik, 10.270 kg jasotzera pasatu gara. Beraz, 3.382 kg gehiago hilero (+%49,2). Igoera nabarmenenak materia organikoan (+%84) eta ontzietan (+%133) gertatu dira. Paperaren eta kartoiaren kasuan, igoera apalagoa izan da (+%25). Beiraren kasuan, jaitsiera txiki bat izan da (-%11,5), garrantzirik gabekoa; izan ere, beira-bilketak gorabehera asko izaten ditu urtean zehar (hilero ez da beira kantitate berbera jasotzen).
- Bildutako guztiaren portzentaian: aurreko sisteman, gaika bildutako kantitatea bildutako guztiaren %39 zen; sistema berrian, berriz, bildutako guztiaren %92.

Bildutako hondakin guztien kantitatea jaitsi egin da (-%37,7):

- Hilero 17.843 kg jasotzetik, 11.118 kg jasotzera pasatu gara. Beraz, -6.726 kg gutxiago.
- Hondakinen sorkuntza per capita heren bat jaitsi da. Biztanle bakoitza egunero 0,887 kg sortzetik, egunero 0,553 kg sortzera pasatu da.

ONDORIOAK LABUR-LABUR.

- Jatorrizko bereizketan herritarren parte-hartzea handitu da, birzikla daitezkeen hondakinen bilketa handituz eta errefusa nabarmen gutxituz.
- Birzikla daitezkeen materialen bereizketan parte hartzen ez zuten herritarrak edo erdipurdi ari zirenak poliki-poliki parte hartzen hasi dira.
- Oro har, hondakinen arazoari buruzko herritarren kontzientzia areagotu egin da, eta konpromiso pertsonala handitu.
- Bildutako hondakinen kalitatea mantendu egin da, bereziki materia organikoarena.
- Bildutako hondakinen kantitatea (bildutako frakzio guztien batuketa) nabarmen jaitsi da, neurri batean familien heren batek "atez ateko" sistema oraindik erabiltzen ez duelako. Dena den, jarrera hori ez da jasagarria epe luzera begira, eta poliki-poliki aldatzen joango da. Horren aurrean, kontzientziazio lana ezinbestekoa da.

ESKERRIK ASKO GUZTIOI! ■

AURKI, ALDAKETAK



Poltsa konpostagarriak ematen dituen makina jarri da udaletxean. Etxean materia organikoa bereizten dutenek txartel bat jasoko dute makinatik poltsak eskuratu ahal izateko.



Edukiontzi marroiei sarraila elektronikoa jarriko zaie. Giltzarekin ireki ordez, txartel batekin irekiko dira (makinatik poltsa konpostagarriak lortzeko txartel berbera).



Udaletxean (bulegoko ordutegian), hiru edukiontzi txiki jarri dira etxeetan sortzen diren tamaina txikiko traste zaharrentzat (Udalak garbigunera eramango ditu):

- Tresna elektriko txikiak (ile-lehorgailua, plantxa, txigorgailua...)
- Txatarra (zartaginak, kazolak...)
- Bestelakoak (erratzak, zoru-garbigailuak, puskatutako jostailuak...)



Asteazken eta ostiraletan ez da fardel-bilketarik egingo.

Haurrak edo adinekoak dituzten familientzat Itsasondoko bi tokitan (Nautikon eta Toki-Goxon) edukiontzi gris bana jarri da, fardelak bakarrik jasoko dituenak. Edukiontziak txartel baten bidez irekiko dira. Txartela etxean jaso duzue.



Gaztelekua, haurrak eta gazteak

Gaztelekua

Ostiraleroko 12 bat gazte elkartzen dira Gaztelekuan. Bertan, beren gustuko ekintzak egiten dituzte. Horien artean arrakastatsuenak ordenagailu-jolasak dira.

Orain Gabonetara begira ekintzak antolatu dira Gaztelekuan. Mahai-jolas txapelketa eta sukaldaritza-tailerra izango dira, bai eta Goierriko gaztelekuen arteko futbito-txapelketa ere. Idiazabal, Ataun, Zegama eta Itsasondoko gazteak izango dira lehian. Txapelketa Idiazabalen jokatu da, urtarrilaren 4an. Saririk ezean, galtzen duen taldeak zigorra jasoko du. Hain zuzen ere, galtzen duen gaztelekuak beste herriei ekitaldi bat prestatu beharko die bere gaztelekuan.

Ekintza horren helburua da nerabeen arteko topaketa bat bultzatzea, kirola eginez eta beren arteko harremanak sustatuz. Goierriko gaztelekuetako hezitzaileek bultzatutako ekimena da.



Haurrak

Haurrentzako ere ekintzak egingo dira Gabonetan. Horretarako, begiraleak kontratatu dira, eta goizez, Gaztelekuan, tailerrak, jolasak eta irteerak egingo dituzte.



Gazteak


18-30 proiektuaren inguruan saiakera bat egin bada ere, urrian planteatu zen bilerara oso jende gutxi etorri zela-eta, bertan behera utzi zen. Momentu honetan, Udala gai horri buruzko hausnarketa batean murgilduta dago, aztertzeke nola eutsi dakioken gai horri.

Itsasondoko 18-30 urte arteko gazteekin garatu nahi den proiektu-proposamenak hiru saio parte-hartzaile aurreikusituen zituen. Saio horiek prozesu luzeago baten lehen urrats izan nahi dute. Hala ere jakitun gara prozesu bat abiarazteko ezinbesteko baldintza izan beharko lukeela Itsasondoko gazteek prozesu horren partaide izateko agertutako borondate eta konpromisoa. Beraz, proiektu horretan hiru saio egitea proposatzen zen, azken saioan guztion artean landutako edukiak bere horretan utzi, edota lanketa kolektibo luze eta sakonago baten baitan txertatuko ditugun erabaki ahal izateko.

Proposatutako saioen helburuak ondorengoak lirateke:

- Itsasondoko gazteek beren emantzipazio bidean izan ditzaketen beharrak kolektiboki identifikatzeko espazioa ahalbidetzea.
- 18-30 urte arteko Itsasondoko gazte guztiei euren errealitatearen inguruan kolektiboki hausnartzeko aukera eskaintzea.
- Bertan, premia horiek asetzeko egon daitezkeen aukerak aztertu ahal izatea.
- Gazteen premiak Itsasondoko udal-egituraren baitan ezagutaraztea eta presente egotea. ■

TENTSIO HAUNDIKO LINEAREN AUKERA EZBERDINAK



Autobide elektrikorik ez

AHTren eraginak gertutik bizi ondoren, beste proiektu suntsitzaile batekin datozkigu oraingoan. 2010. urtean “Gasteiz/Castejón-Muru Artederreta” goi tentsioko linea elektrikoa baztertua izan zen, jendartearen oposizioa- rengatik. Orain, berriz, eragin bera izango duen ordezko beste linea bat sortu dute Itsasotik Deikaztelura.

Linea berri horren xehetasunak honako hauek dira: 400 kV-eko linea bikoitza, 120 km-ko luzera, 46 metroko altuera eta 26 metroko zabalera izango duten dorretxoak egongo dira 400-500 metroan behin.

Ez dago linea horren beharrik, ez arrazoiatutako justifikaziorik behintzat. Hala ere, 166 udalerrri zeharkatuko dituen 120 kilometroko sarea proiektatu dute. Horren harira, hainbat herritan mozio hau aurkeztu da, eta Itsasondon onartu egin da:

1. Gipuzkoako Itsasoko azpi-estazioa eta Deikazteluko 400/220 kV-eko azpi-estazioa lotuko dituen 400 kV-eko linearekin, eta Deikaztelun aurreikusituen azpi-estazioaren proiektuarekin erabateko desadostasuna azaltzea.
2. Red Eléctrica de España, SArek Hasierako Dokumentuan ageri diren balizko pasabide guztiekin erabateko desadostasuna azaltzea, eta, era berean, adieraztea goi-tentsioko aipatutako lineak ez duela inongo justifikaziorik interes orokorrerako.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei, EAeko Gobernu eta Parlamentuari, eta Ingurumen eta Nekazaritza eta Itsas Ministerioari aipatutako proiektuari ezezkoa eman diezaioten eskatzea, interes orokorrerako oso garrantzitsuak diren eremuetako paisaian eta ingurumenean onargarriak ez diren ondorioak izan ditzakeelako.
4. Akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta EAeko Gobernuari, Ingurumen, Nekazaritza eta Itsas Ministerioari, eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari bidaltzeaz gain, komunikabideen bitartez publiko egitea.

INGURUMENEAN IZAN DITZAKEEN ERAGINAK:


- Landaredia galtzea.
- Zarata agertzea.(Koroa efektua)
- Eremu elektriko eta magnetikoak.
- Hegaztiak talka egiteko arriskua.
- Bateriaezintasuna hainbat jarduerarekin.
- Eragina kultur ondarean.
- Distantziak eta bide-zorrak.
- Paisaiaren desnaturalizazioa.

Bestalde, Luis Miranda erradiologiako medikua pertsonengan izango dituen eraginei buruz mintzatu zaigu. Bere esanetan, memoria galerak eta buruko minak ohikoak dira horrelako linea baten inguruan. Abortatzeko eta leuzemia izateko arriskua areagotu egiten da, eta emakume haurdunak eta haurrak dira gizatalderik kaltetuenak. Europar Batasunaren gomendioak aintzat hartuta, goi tentsioko sare batetik 500 metroko gutxienezko distantzia gordetzea komeni da, eta proiektu honetan 43 herritan gutxienez ez da betetzen distantzia hori.

Edure Visiers abokatu da, eta REE, SAK aipatutako eragin sozioekonomiko positiboetarako buruz aritu zaigu. Bere aburuz, lineak ez du onurarik sortzen pasatzen den herrietan. Sarearen helburu bakarra da elektrizitatea batetik bestera garraiatzea: kasu honetan, Espainiako erdialdera eta Levantera. Guri eragin sozioekonomiko positiboa gisa saltzen digutena konpainia elektrikoaren etekinak handitzeko bidea baino ez da.

Ondorioz, irmotasuna erakutsi behar dugu basakeria horren aurrean, gure herriak haien etekinerako erabili nahi dituztenei ezetza emanaz. ■

INFORMAZIO GEHIAGO:
nolineadealtension.blogspot.com



Gabonetan, Olentzero ala Erregek?



Rakel eta Ana

Gure etxean Olentzero ospatzen dugu, baina beti erortzen da opariren bat Errege egunean, batez ere aitona-amonen etxean.

Telebistan eta aldizkarietan agertzen diren jostailuak eskatzen dituzte gehienetan.

Liburu edo jostailuren bat hartzea ere gustatzen zaigu, haien imajinazioa garatzeko. Euskarazkoak izan daitezela saiatzen gara.

Urtero bezala, euskarazko liburu eta jokoei buruzko aldizkari bat jaso dugu, baina ez zaigu erraza egiten beti material hori aurkitzea dendetan.



Elena, Mikel eta Miguel

Olentzero eguna ospatzen dugu, baina Errege egunean ere zerbait egoten da. Gehien eskatzen dituzten opariak telebistan ikusten dituztenak dira, baita dendetan ikusten dituztenak ere. Beti erosten ditugu euskarazko liburuak eta familia guztiak jolasteko jokoren bat. Material gehiago dago euskaraz liburuetan jokoetan baino. Euskarazko jokoa aurkitzea gehiago kostatzen zaigu.

Eroskin eta Carrefourren, adibidez, joko gutxi daude euskaraz. Liburuak, baina, gehiago daude.

1.

Gabonetan, zein ospatzen duzue, Olentzero eguna, Erregeak ala biak?

2.

Ze opari mota oparitzen diezue umeei? Jostailu didaktikoak oparitzen al dituzue? Euskaraz?

3.

Euskaraz material asko dagoela uste al duzu?

4.

Material hau aurkitzea kostatzen al zaizue?

Kolosala izango da Egin dezagun bidea



Aro politiko berri batek Euskal Herria argitu du. Hamarkadetan luzatu den gatazka politikoari irtenbide justu bat aurkitzeko eginahalean bat egiten dute Euskal herriko nahiz nazioarteko eragile politikoek, sindikalek eta erakunde anitzek ahalegin metatu hauen fruituak ikusten ari gara. Gaur, ukaezina da gure herria urratsez urrats benetako bake eta demokrazia egoera batera hurbiltzeko bidea egiten diharduela.

Asko dugu egiteko baina ez da gutxi izan egin duguna. Azken hilabeteotan elkarrizketa saioek eta gauzatu diren akordio eta ebazpenek gatazkaren konponbiderako oinarriak marraztu dizkigute. Gatazkaren konponbide prozesuan arretaz begiratu behar zaie gatazkaren sorburuei eta ondorioei. Zentzu horretan, munduan zeharreko gatazka ezberdinen esperientziek utzitako arrastoei erreparatu beharko genieke. Horrek, besteak beste, euskal preso politikoen egoeraz mintzatzera garamatza bada nahitaezkoa da, horretarako, espetze-politika konponbidearen gakoetara ekarzea.

Espetze-politikak gizabanako orori aitortzen zaizkigun oinarriko eskubideak ukatzen ditu oraindik orain. Ezarritako zigorrak bete ondoren espetxean mantentzen dituzte hainbat preso. Gaixotasun larriak dituztenak giltzapean dituzte gaur gaurkoz. Sakabanaketak istripuak eragiten jarraitzen du. Egoera bidegabe honek bere horretan iraun du luzaroan, luzaroei, eta eskaerak indartzeko garaian gaude geltokiz geltoki sortzen ari garen eszenatoki berrien atarian.

Aldarrikapen hauekin bat egin asmoz **Egin dezagun bidea** ekimenak **Herri Mobilizazio Orokorreko** deia egin du eta Bilbo izango da euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen defentsan bat egingo duen herriaren ahots-oihartzunaren aterpe. Bertaratu nahi duzuen guztiontzat autobusa irtengo da Itsasondoko plazatik arratsaldeko 3etan, beraz animatu besterik ez duzue.

Bategite honez gain ekimen gehiago ere burutuko dira herriz herri datozen egunotan. Gabon-egunen atarian egonik, **itsasondotar guztiari baraualdi bat egiteko proposamena luzatzen dizuegu, abenduaren 30an 20:30etan hasi eta hogeita lau orduz luzatuko dena;** gogoetarako eta elkartasunerako topagune izan nahi du egitasmo honek. **Ostiralero legez, abenduan zehar ere, elkarteratzeak burutuko dira herriko plazan gure artean ez daudenekin bat egin asmoz.** Animatu parte hartzera, zure ahotsa entzun dezaten! ■




Emakumeenganako indarkeria

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen.

Horren harira eta Gizarte Zerbitzuetatik momentu honetan eskaintzen diren baliabideen berri eman nahi da. Gizarte Zerbitzuetara etxean tratu txar psikologiko nahiz fisikoak edo sexu indarkeria jasan duen emakumea gerturatzan denean, gizarte langilearen lehen tasuna emakumeari entzutea eta laguntza osoa eskaintzea da. Entzun ondoren, jarraitu behar-reko pausoen berri eman, eta dauzkan aukerak azaltzen zaizkio. Gizonezko erasotzaileak ere jo dezake gizarte langilearengana, eta berak ere laguntza jasotzeko eskubidea dauka. Gerturatzan den pertsonak baliabideren bat nahi duen ala ez erabakitzen duenean, gizarte langilearen lana da eskaera Gipuzkoako Foru Aldundira bideratzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituen baliabideak (Udaleko gizarte zerbitzuetatik bideratuta) hauek dira:

1. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA (sexu indarkeria edo etxeko tratu txarren kasuan): laguntza hori emakume erasotuari zein gizonezko erasotzaileari zuzenduta dago. Psikologoaren kostua Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzen du.
2. LAGUNTZA JURIDIKOA: Emakumeak salaketa jartzeko asmoa badauka, edo banaketa prozesuarekin hasi nahi badu, Gipuzkoako Foru Aldundiak orientabidea eskaintzen dio.



Eskaintzen diren baliabide horiek, ordea, arazoaren zati bati bakarrik erantzuten diote, eta indarkeria sexistaren dimentsio guztiak kontuan izan nahi baditugu, bikote harremanetako eraso fisiko, psikologikoak eta hilketak kontuan izateaz gainera, torturak, jazarpenak, kaleko erasoak, irainak e.a. ere buruan izan behar ditugu. Azken horiek kalean, auzokideen artean, herriko festetan, lanean e.a. ematen dira, gure egunerokoan eta bikote harremanetik kanpo. Bestelako kasu guzti horientzat ez dago ia baliabiderik, baina garrantzitsua da mahai gainean jartzea eta erakunde publikoei, lagunei eta familiarrekoei horien berri ematea.

Itsasondoko Udaletik, gazte teknikariaren koordinazioarekin, lanketa berezia egin behar da herriko gazteekin, berdintasunaren eta pertsonen arteko errespetuaren bidean. Azaroaren 25ean ere, gazteen eskutik eta herriko jubilatuen laguntzarekin, herritarrak elkar-tu eta indarkeria sexista salatzen bildu ziren. Horrelako ekintzak ezinbestekoak dira egoera ulertu eta gizarte-egituraren aldaketa bat eragiteko! Aldaketa ezinbestekoa da erakunde publikoetan, enpresetan, herriko emakume zein gizonetan... Ez onartu errespetu faltarik! ■

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Azaroaren 25a Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna zela aitzakia gisa hartuta, Itsasondon hainbat ekintza egin ziren. Alde batetik, Gaztelekuan Izarren argia pelikularen emanaldia egin zen. Bertan, 22 lagun bildu ziren. Jarraian, Jubilatuekin elkartean, txokolate beroa banatu zen herritarren artean, eta jende ugari bertaratu zen. Azkenik, herritar talde bateko minutu bateko isilunea egin zuen, indarrez hildako emakumeak oroitzeko. ■



Minutu bateko isilunea plazan.



Jubilatuenean txokolate jaten.

Gabonetako opari teknologikoak

Bideo-jokoak, argazki eta bideo-kamerak, musika eta telesail/filmak nagusi aurtengo Gabonetan.



Bideo-jokoak, argazki eta bideo-kamerak, musika eta telesail/filmak nagusi aurtengo Gabonetan.

Olentzero dagoeneko bidean da, eta aurtengoa ere sekulako opari teknologikoak dakartzkigu zakuan. Nahiz eta krisialdian egon, aurtengoa ere produktu teknologikoak salduko dira gehien.

Krisi hitza ezagutzen ez duen sektorea da bideo-jokoen industria. Geroz eta gehiago handitzen ari da merkatu hori. Aurtengo Gabonetan, bideo-jokoei dagozkien produktu arrakastatsuenak PS3 (PlayStation 3) eta Nintendoren Nintendo 3DS izango dira. Kontsola horiek etxeko txikientzat (eta ez hain txikientzat ere) izango dira gehienbat.

Ordenagailuak ere protagonista izango dira. Sekulako joko berriak ateratu dira azken bi hilabeteetan. Hala nola, *Call of Duty Modern warfare 3*, *Battlefield 3*, *Assassins Creed Revelations*, *Stars Wars The Old Republic* eta *Skyrim* izango dira Gabonetako PC joko salduenak.

Horretaz aparte, argazki-kamera digitalak eta bideo-kamerak asko saltzea espero da. Badirudi geroz eta jende gehiagok duela argazkilaritza hobby gisa. Gure bidaien edo edozein ekitaldiren oroitzapenak gordetzeko aukera ematen digun opari perfektua.

Telesailen pack-ak ere asko oparitu dira, dirudienez. Telesailen zaletasuna dutenek badakite dagoeneko *Walking Death*, *El Barco*, *Aida* eta beste hainbat telesailen pack-ak merkatuan direla.

Eta, bukatzeko, aurtengo produktu kutunak iPhone 4S, iPad 2, Samsung Galaxy 2 eta Nokia Lumia 800 izango dira. Badirudi mugikorrek mugikor huts izateari uko egin diotela. Gure mugikorrak gure agenda elektronikoa bilakatu dira. Badirudi Apple konpainiari lehiakide gogorrak ateratu zaizkiola, batez ere Nokia, Windowsekin (Microsoft) akordio batera iritsi baitira Nokiakoak. Oraingo honetan, Nokia berriak Microsoftek egindako sistema eragileekin etorriko dira.

Badakizue, edozer zalantza baldin baduzue, nirekin harremanetan jar zaitzekete honako helbidean: djashbaza-ga@hotmail.com


Gabon onak izan ditzazuela. ■



12. Ibilbidea

Itsasondo-Bartzelona-San Juan Iturria-Itsasondo

Iraupena: 3 ordu
Ibilbidea:
 Itsasondo-Bartzelona: 60'
 Bartzelona-Abali-zelai: 45'
 Abali-zelai-Garikano: 35'
 Garikano-Itsasondo: 40'



Legorreta



Deskribapena: Ibilaldiari hasiera emateko, Legorreta aldera joko dugu, hain zuzen, Bartzelona nekazalturismora. Bertako ukuiluaren atzealdetik irteten den pista hartu, eta gorantz ekingo diogu. Bidean, borda eta mugarri (Baliarrain-Legorreta) batekin topo egingo dugu. Arrasto zuri-horia ikustean, jarraitu arrastoei gorantz, garo-meta batzuekin topo egin arte. Toki horretan, arrasto guztiak alde batera utzi, eta eskuineko bidea hartuko dugu. Baliarraindik San Juan iturria doan bidera eramango gaitu, eta hemendik Abali-zelai Goiko baserrira iritsiko gara. SL-GI5 (zuri-berdeak) arrastoak jarraituko ditugu, PR-GI72 (zuri-horia) arrastoekin topo egin arte. Arrasto horiek Legorreta aldera eramango gaituzte. Garikano inguruan, ezkerreko pista hartu, bidean bi langa pasatu eta aurrean dugun zehar-bideak Itsasondora eramango gaitu zuzen-zuzen. ■



02 Bartzelona bidean



03 Bartzelonako kruzea



04 Bartzelona nekazalturismoa




05 Borda



06 Mugarria



07 Garo-metak



08 Abali




09 Garikano



10 Itsasondo



Itsasondoko jubilatuetak Balentziaga Museoan 2011ko urriak 13



Erabakitako orduan, goizeko bederatzi eta erdietan, eguraldi ilun samrarrarekin irten ginen 45 jubilatutako Getaria aldera. Iritsi ginenerako eguraldia jaso eta gure eginkizun nagusia betetzen hasi ginen, Cristobal Balenciaga Museoan ikusten, hain zuzen ere.

Eraikina gain batean dago, oso toki politean. Bertara iristeko, eskailera mekanikoz hornitutako igoera eroso dago, batere nekatu gabe irits zaitezke eraikinaren sarrerara. Bati baino gehiagori bururatu zitzaigun horrelako tramankulu bat ez litzatekeela gaizki etorriko Goiko-Kalean bizi diren herritarrentzat.

Museoa miresgarria da, handia eta ederra. Txangora joan ginen gizonezkoak gehiago gozatu genuela esango

genuke eraikinari begira, barruan erakusteko zeuden jantzi eder eta ugariak begira baino. Museorako sarrera handia eta ederra da, bertan Balentziagaren bizitza eta zenbait lan azaltzen dituen panel informatibo handiak daude.

Cristobal Balentziaga Getarian jaio zen, 1895eko urtarrilaren 21ean. Xabian (Alacant) hil zen, 1972ko martxoaren 24an, eta beti maite izan zuen bere Getaria maitean lurperatu zuten.

Museoa oso ondo hornituta dago, kafetegia, komunak eta egongelak ditu, baina guztietan ikusgarriena berak jositako jantziak dira: eguneko soinekoak, gaueko soineko bereziak, Fabiola erreginaren ezkontzako soinekoak... Guztiok ibili ginen gustura erakusketa hura ikusten, baina bereziki

etxeoandreak, ez ginen berehalakoan aspertu!

Museoko bisitaren ondoren, Getariako kaleetan ibili ginen, Elkano ospetsuaren herria zapaldu eta eguzkia hartuz. Batzuk portura, besteak tabernara eta beste batzuk elizara ere joan ginen.

Bazkaltzeko ordua iristean, denok txintxo autobusera inguratu eta Orioko Altzerri jatetxera joan ginen. Oso bazkari ona egin genuen, eta denok oso gustura atera ginen handik.

Arratsaldean Zarautzen pasa genuen, etxeratze ordura arte. Batzuek itsas ertzean paseatzeko aprobetxatu genuen, eta beste batzuek, berriz, kaleetan zehar dauden erakusleihoak ikusteko. ■

Euskararen astea

Aurtengo Euskararen Astea ekitaldiz beteta egon da. Bertan, gazteek, jubilatuek, gurasoek, haurrek eta herritar ugari ekintza asko antolatu dituzte, bai eta parte hartu ere.

Azaroaren 25ean, pelikula emanaldi eta txokolate beroarekin hasi zen Euskararen Astea. Larunbatean, Gaztaina Eguna izan zen, eta mendibilaldirioaren ondoren, gaztainak dastatzeko aukera izan zen herriko plazan. Jende ugari agertu zen. Gauean, antzerkian, 40 lagun inguru bildu ziren, eta nahiko barre egin zuten, gaur egungo teknologia berrien inguruan.

Azaroaren 2an, kantu afaria izan zen Arbelaitz elkartearen. 43 lagun bildu ziren sagardotegi menua dastatzeko eta kantari jarduteko. Festak goizaldera arte iraun zuen. Larunbata Euskararen Egun handia izan zen. Arratsaldean, txotxongiloak izan ziren Gaztelekuan, eta guraso eta ume ugari gerturatu ziren. Ondoren, talo festan, trikitilariak giroa alaitu zuten, eta talo ugari saldu ziren.

Aurten, ekintza ugari egin dira Euskararen Astean. Horiek antolatzeko jende askok lan egin eta parte hartu du. Gure eskerrik beroenak herritar horiei guztiei.



Antzerki emanaldia



Kantu-afaria



Txotxongiloak emanaldia



Talo-festa



Kalejira

Itsasondoko XII. Ziklo-krosa

Urtero legez, eta aurten inoiz baino garaizago, egutegiko datak horrela eskatzen zuelako, Itsasondoko ziklokrosa antolatzeari ekin genion. Hamabigarren ekitaldia izan dugu aurtengoa.

Partaidetza aldetik begiratuta, partaidetza oparoa izan genuela esan beharko genuke: 40 kadete, 43 jubenil, 31 elite eta 75 master. Ia 200 parte-hartzaile izatea antolatzailentzat pozgarria dela esan beharko genuke, behin lana hartuta behintzat erantzun ona izatea.

Gastuen aldetik ia 7.000 euroko aurrekontuari egin behar izan diogu aurre. Gastuak era guztietakoak izaten dira: sariak, dietak, epai-leak, anbulantziak, garaikurrak... Baina era batera edo bestera ziklo-krosa antolatzen ibiltzen garen lan-taldeak aurrekontuak aurrera ateratzea lortzen dugu, nahiz eta ditxosozko krisia dela-eta azken urtean dirua eskatzea nekeza suertatzen ari den.

Kirol alorrean, Egoitz Murgoitoren garaipena eta nagusitasuna aipatu beharko genituzke lasterketa nagusian. Abadiñarraren atzetik Orbea etxeko Aitor Hernandez sailkatu zen, eta hirugarren, Aketza Peña.

Beste kategorietan, jubeniletan Caja Rural etxeko Peio Olaberria mutiloarrak lortu zuen garaipena, eta kadete mailan Inoxcra etxeko Patxi Aldanondo beasaindarra izan zen garailea.

Ikusle aldetik ere jende ugari gerturatu zen Itsasondora ziklokrosa ikustera, eguraldi onak lagunduta. Pena aurten lokatzik gabeko urtea izan dela, eta txirrindulariak oso azkar eta batera zikindu gabe izan genituela.

Ijittu kirol elkartetik ziklokrosa antolatzen lagundu duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Eta hurrengo urteari begira edozein herritarrek kirol proba prestatzen lagundu nahi badiguzue, ateak irekita dituzue. Lan-taldean 20 pertsona izan beharrean gehiago bagara, gauzak askoz errazago prestatu, eta lasterketa egunean askoz hobeto moldatzeko baliabideak izango ditugu.

Eta herritar guztiei ziklokrosa dela-eta sortu dizkizuegun trabak eta trafiko arazoak ulertuko dituzuelakoan eta izan duzuen pazientzia eskertuz agurtzen gara.



Iturritxiki guraso elkarte

Azaroak 26, larunbata, Itsasondoko Iturritxiki guraso elkarteak antolatuta eta guraso talde batek lagunduta, Gaztain Eguna ospatu genuen, arratsalde bikain bat borobilduz.

Besteak beste, mendi ibilaldi xume bat eta gaztain erre ederra, txistorra, txokolate ogitarteko eta hainbat edariz osaturiko askariak gozatzeko parada izan genuen. Hori guztia eguzkiaren epelaz eta trikitixa alai batez jantzita.

Mendi ibilaldian, haur, gaztetxo eta guraso talde jator bat elkartu ginen arratsaldeko 15:30ean. Eskolatik abiatu, Otamendi baseritik aurrera jo eta gure herriaren ikuspegia eskaintzen digun bidean jarraitu genuen.

Arratsaldeko 18:00etan, galdutako indarrak berreskuratzeko eta erreserbak handitzeko askaria prestatu zigun guraso talde batek. Jaki goxo zein beroak. Eskerrik asko!!!

Jarraian, helduen arteko elkarrizketa arinek eta haurren jolas biziek arratsaldea osatzen lagundu zuten.

Eta, horrela, pixkanaka-pixkanaka, iluntzeko hotz printzak lagunduta, danbolinaren beroa utziz, etxerako bidea hartu genuen.



Ehundik gora txirrindulari XIV. Mendikleta ibilaldian

Itsasondoko tradizio handia du urtero egiten dugun BTT ibilaldiak. Aurten ere txirrindulari zale ugari bildu ginen irteeran, mendi-bizikletak hartuta, Itsasondoko plazan hasi eta bukatzen den proban parte hartzeko prest. Denera 140 lagunek eman zuten izena, eta denek bukatu zuten proba. Antolakuntza bikaina izan zen, eta antolatzailen nahiz parte-hartzaileok, denak gelditu ginen gustura probarekin.

Txirrindulariek bi ibilbide zituzten aukeran: bat 29 kilometrokoa eta bestea 20koa, biak ere Murumendi eta Pagorriaga paisaia ederretatik igarotzen zirenak. Parte hartu zuten guztiek osatu zuten ibilbidea. Ibilaldi bat izaki, bukatu ez zen saikapenik egin, baina, horren ordez, kirol materiala banatu genuen parte-hartzaileen artean, eta merienda eder bat eman, indarrak berreskuratzeko.



Mikel



Joxean



Tomas



Zugaitz



Jokin



Eriko



Proba bukatu ondoren plazan



Parte-hartzaileak Legorreta zaharretik gora.



UN SECRETO BIEN GUARDADO Maureen Lee

1939an, Amyk eta Barneyk elkar ezagutuko dute, eta ezkondu egingo dira. Bigarren Mundu Gerrak ordea, banandu egingo ditu urte batzuetan. Senarra itzultzean, erabat aldatuta dagoela nabarituko zaio, eta liskar baten ondoren, hil egingo da. Amy kartzelan sartuko dute.

20 urteren ostean, kartzelatik irten eta alabarekin harremana berreraiki egin beharko du. Bi emakumeen arteko topaketak beren bizitza aldatuko du.



EL IMPERIO ERES TU Javier Moro

2011ko Planeta saria. Pedro I.a Brasilgo enperadore izandakoaren istorioa aurkituko dugu liburu honetan.



EL CONTENIDO DEL SILENCIO Lucía Etxebarria

10 urtez ahizparen berri izan gabe egon ondoren, Gabrielekek haren heriotzaren berri izango du. Sekta baten barruan taldean hil den susmoa dute. Liburuaren protagonista berehala gerturatuko da, eta bertan, ahizparen lagun-minarekin batera, ahizparen bizitzan sartuko da. Hainbat gauza berri topatuko dituzte.



UN JARDIN OLVIDADO Luis Bagué Quilez

Poesia gustuko duten irakurleentzat. Maitasuna, mitologia eta beste zenbait gai ukitzen dituen poesia liburu da.



PUPU ETA LORE

Euskal Herriko pailazoaren liburu berria.



HIRU MOSKETARIAK DVDa EUSKARAZ



LA VIDA DESPUÉS Marta Rivera de la Cruz

Victoria New Yorken bizi da. Bere lagun Jan-en heriotzaren berri jakin bezain azkar, Madrilera etorriko da. Lagunen, afektuaren eta maitasunaren istorioa topatuko dugu liburu honetan. Baina, batez ere, emakumeen arteko harremanari buruzko hausnarketa sakonaren isla da liburu hau.

LIBURUTEGIKO OHARRA:

Itsasondoko liburutegian zerbitzu berria jarri da. Hain zuzen ere, astearte eta asteazken goizetan arreta zuzena eskainiko da 9:30etatik aurrera. Bertan, arduraduna izango da eta erabiltzaileek txartelak egiteko, zalantzak argitzeko, liburuak topatzeko edota liburuak eskatzeko aukera izango du. Interesatzen den libururik ez balego, beste liburutegietatik ekartzeko aukera izango litzateke. Horretarako, astearte edo asteazkenetan, liburutegira gerturatu behar da. Horrez gain, liburutegiko helbidea luzatu nahi da, liburutegira gerturatu ezin duenak bere eskaera egiteko: liburutegi.itsasondo@udal.gipuzkoa.net.

(lorezaintza gomendioak)

Ardisia crenata

Tamaina txikiko zuhaixka da, *Myrsinaceas* familiakoa.

Ardisia iraunkorra da, eta kanpoan nahiz barruan eduki dezakegu (klima gozoetan), erraz hazten baita. Asiako hegoaldeko datorki, eta normalean ontzietan hazten da.

Oso erakargarria da, bai koloretsuak baititu. Luzaroan irauten dute baiek landareetan (6 hilabete baino gehiago). Gainera, Gabon garaian izaten da sasoi hori. Hori dela eta, azkeneko urteetan garrantzi handia hartzen ari da Ardisia.

Ekainean loratzen da, eta zuri koloreko luku txikiak ematen ditu. Garrantzizkoa da pintzel txiki batekin bere loreak emeki-emeki igurztea, polinizazioari laguntzeko, eta, horrela, askoz bai gehiago izateko.

ZAINKETA OROKORRA

Argia. Lekurik aproposena leiho ondoan da, argitasun handia jasotzeko. Udan, ez da komeni eguzkiaren izpiek zuzenean jotzea. Kanpoan badago, haize bortitzetatik babestu behar da, baita izotzetik ere.

Temperatura. Barruko giroak ez du oso beroa izan behar, posible bada, berogailurik gabe, 20° inguruan.

Ureztaketa. Udan ur asko behar du; neguan, aldiz, oso gutxi.

Ongarria. Hilabetean behin, udaberrian eta udan.

Izurriteak. Kalte egiten dio kotoi itxurako kotxinilak, bai eta zorriak ere.



Maixel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Arroza odolkiarekin

Osagaiak: 4 lagunentzat

200 gr. arroz
2 tipulin
Litro erdi salda
400 gr. odolki
Idiazabal gazta
Azenario bat
Porrua
Olio, gatz

Prestakuntza:

Hasteko, odolkia egosiko dugu, 40 minutu gutxi gorabehera. Behin egosita dugula, azala kendu eta barrukoa txikituko dugu.

Bestalde, tipulina oliotan egingo dugu, su motelean olio pixka batekin, eta ondoren, odolkia eta arroza gehituko dizkiogu, saldarekin batera. Arroza puntuan dagoenean (12 minutu gutxi gorabehera), sutatik kendu, eta Idiazabal gazta xigortua gehituko diogu.

Azenarioa, porrua edo gogoko dugun barazkia "juliana" eran moztu, eta ura eta gatzarekin egosiko dugu.

Aurkezpena:

Edalontzi batekin forma eman, eta plater baten gainean buelta emanda jarri. Edalontzia kendu (erantsi ez dadin, olio pixka batekin edalontzia busti), eta barazkiak gainean jarriko ditugu. Nahi izanez gero, babarrun-saltsa edota azarekin pure fin bat egin dezakezue laguntzeko.



Jose Ignacio Duhau
Rubirena Jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

oharrak

**! HURRENGO IKASTAROA
EZAGUTU ETA HOBETU EZAZU ZURE MEMORIA**

IZEN EMATEA URTARRILEAN
Jubilatuentzako ikastaroa da.
Hasiera data: apirilak 18
Bukaera: ekainak 18
Eguna: asteazkenak
Ordua: 18:00-19:30
Lekua: Jubilatuta elkarte



Kultur Agenda

Abendua

Abenduak 24:

Gabonetako abestien erronda herrian zehar.

Abenduak 24:

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

Otsaila

Otsailak 4:

Santa Ageda bezperako erronda.

Otsailak 11:

Ijittu eguna

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170

- **Gizarte Langilea**
- **Udal Arkitektoa**
- **Epaitegia**

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkartea 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo.e.o

Herriko Aldizkaria ((15.zk.)) Abendua-Martxo 2012

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Arantza Arza
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Gorka Telleria
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Mendizabal
Itsaso Urretagoiena
Iturritxiki Guraso Elkartea
Jose Ignacio Duhau
Jose Luis Aranburu
Jubilatuak
Maddi Alberdi
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Miren Aburuza
Rosa Aurkia
Rosi Noguera

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572

**! GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
MARTXOAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**

Paper birziklatuan egina

truke estudio grafico